

Bi liburu eta ohar batzuk

Zeruko Argia, 618. zk., 1975-01-05: 6.

Irten berriak diren *Hablando con los vascos* eta *Síntesis de la Historia del País Vasco* liburuaz idatzi dira han eta hemen argipen eta kritika gisa idazlan batzuk.

Erriarentzat idazten duenak ba daki erriak berak dituen iritzi eta epai-bideetatik abiatzen dela. Eta, hala, nolabait erriaren aho den kazetari eta kritikaren argipenak sari bezala behar dira artu, ez bestela; liburua, komunikazio prozesu baten asiera eta oiartzun bila datorren itza danez, erantzun hoiek beti dira naigarri, baita akuluak bezala zulatzen dutenean ere. Idazleak berak ezagutzen ditu berea den lanaren zenbait ahuleri, baina batek bere kabuz ikusi ahal dituzenez kanpo beti agertzen dira batek nahi baino gehiago eta batek nahi baino aundiago diren utsunean, akatsak eta erruak ere.

Idazle bakoitzak bere joera berezia ba du askotan korapilotsua den erantzun hau berean artzeko.

Batzuk, agertzen diren kritikei zuzenki eta agerian erantzuten ahalegintzen dira; beste batzuk, kritikari berari idazten dizkiote bere puntuak; ba dira kritikari bere bidea egiten utzi eta irakurleak berez egingo dituen juizioaz fiitzen direnak ere, eta ni azken hoietakoa nauzute. Azterleari edo aipamena egin didanari idazten badiot, artu duen lanarengatik eskerrak emateko bakarrik izaten da; zor bait diot komunikazio bidea osatzen lagundu diran honi orrenbeste, eta, beste aldetik, ez dut gehiago esateko eskubiderik sentitzen.

Hala ere, oraingo hontan zerbait esan nahi dut nere aldetik.

Gaurko giro beltzak jartzen digu elkar aditzeko komunikabideetan makiña bat traba. Batetik, idazten danari pasa asten dizkieten galbai eta galgaren bideak estuak dira. Idazleak, orduan, berez ditu bereak aurrez galgatzeko, eta ahazten ikasteko den iges-bide honetan ostutzen ez dizkieten itzak askotan beste nonbaite (batzutan irakurlearen ulerbideetan) galtzen ditu.

Baina, noan arira.

Hemen jarriko ditut ahal dutan laburren egin dizkidaten oarrak, eta nere aldetik zergatiak erakusten ahaleginduko naiz.

Hablando con los vascos

1. *Euskalerriatzaz sakonki itzegiteko gai diren artean, ospe aundiko sei pertsona hoiez gainera ba dira ainbat merezi duten "industri-langile", itsas-gizon, baserritar eta enpresa-gizon"; "abeslariak eta andereinoak" ere bai; "or ez dagoz denak"; zergatik ez horrelako liburu batean sartu? (Zeruko Argia, Mikel Ugalde. Euskaldunak, izenpe gabe. Eusko Lurra, V. Solagaistua.*

Liburu bakoitzak bere erabide berezia ba du. Gaurko giroan, *noiz-norakoa* kontuan artu dutalarik, *zenbait-zenbaiti pasatzekoa* izan da liburu honi jarri nahi izan dioten jomuga nagusia. Sarrera kontuz irakurri duenak argi ditzake hontaz argibide batzuk. Esan nahi zirenak, entzute eta itzal ezagunak ematen dion kredibilitade baten bidetik jarri nahi izan ditut, eta hau ezkerretik eskuirainoko gure erriaren aurkezpen bat gaur eta Estadu espainoleko errietaraino irixteko gai izan zitekean zebait.

Beste erabide bat asma nezakean, noski; baina aukera bat egin behar, eta hara nik autatu nuena.

2. *Gazteak palta dira.* (Euskaldunak)

Bixtan da gazteak esango zizkidatenak ez zutela orrenbeste bide egingo.

3. *Ipar-Euskalerrigorik ez* (Euskaldunak)

Egia da. Ez da gogoan izan ez nuelako, baina aukeratu nuena ez nuen garaiz ikusi ahal izan, eta argitaldariai garai baterako liburua merkaturatu behar zuen. Ez dut, ba, anaia *otzean* ahaztu.

Síntesis de la historia del País Vasco

1. *Klase borrokari ez diot behar den garrantzirik eman, edo ez dut behar bezain ongi ikusi eta aztertu* (Euskaldunak, Eusko Lurra)

Berreun orriko laburpen batean gauza asko geratu dira ukitu utsean, noski. Nere jomuga nagusia, Euskalerrriak gaur arte ibili duen bide-marka erakutsi eta erri, nazio, oso eta eten-gabeko bat bezala erakustea izan da. *Hori* erakusteko eta *gaur* zabaltzeko diana inguruan jo badut, ezin diot nere lanari gehiago opa. Eta amaika milatik gora saltzen ari den liburuari ezin hontaz gehiago eskatu.

2. *Gure erriko hixtori barruan sakonki sartzeko bildurra izan dut* (Eusko-Lurra).

Batetik, gaurko giroak ain mugatuak dituen lurretan bideak egin nahi dituenak behar ditu makurkeriak zeharkatu. Eta, bestetik, makurkeri hoietatik libre diren bideak nik nerez eta laburpenaren mugak behartutako ahalmen, gaitasun eta argiarekin ibili ditut. Irakurleak ba du bestela pentsatzeko eskubidea, noski.

3. *Nik, tradizionalistak diren iturri asko erabili dut, eta, esate baterako.* Iraultza I, Saioak 2 eta *Oteizak erakutsitako asmoak ez ditut aitatu.*

Iturri hoiek zergatik aitatu ez ditudan ezagutzeko ez da argi asko behar. Nik nere asmo asko erakusteko tokirik eta askatasunik izan ez badut (eta honetxegatik erabili ditut or barruan ibiltzeko gai diren, eta ain progresista ez diren, argitxo batzuk, noski) nola izango dut ba irakurle askok eta askok aitatu nahi izango dituzketenak erakusteko tokia eta askatasuna? Ba ditut argitaratzerik izan ez ditudan liburuak nor urte zai. Baina hori, nik oraindik egiterik izan ez dudana, beste norbaitek egingo du agian, ahal badu. Oteiza ere aitutzen du Caracastik idazten duen aberkide honek. Ba, Oteizak esandakoak (esan dizkidanetatik esan ahal izango ditudan guziak) laixter aterako ditut beste liburu batean.

4. *Nere azken liburu hoiere artean ideologi aldetik aurkako diren bi pentsa-molde erakuste ditut.*

Ez dut nik hala ikusten. Bi liburu hoietan gizon bere naizela uste dut. Litekeana da, bai, agertu ahal izan ditudan gauzak neurritz ezberdinak izatea, esan-bideak ez bait dira ahalmen berdinekoak izandu. Barandiaran batek esan dituen gauz batzuk ezin esan izango zituen beste batek. Hixtori liburuaz, berriz, nik nerez esango nituenak beste esan-bide batzuen bidez, zeharka, esan behar izandu ditut, eta askotan tradizionalisten bidez, tradizionalistak izan diren beste historigileak ere esan bait dituzte noizbehinka gure erriko egi batzuk, eta gaur guk gure bidera ekartzeko gauza eta gai badira, zergatik ekarri ez? Nik idatzitakoak osagarriak dira denak. Erriarentzat idazten duenak erriak eskatzen dizkion kontuetara jarri behar du belarria, eta biotza ere, baina ezin du, noski, erritar bakoitzarekin asmatu, eta ezta inolatan ere, danekin asmatzeko asmotan idatzi.

Hara ba, hemen, nere azken bi liburuaz ikusi ditudan zenbait oharri erantzuna.

Argigarri izan bedi gure gaurko ilunpe hontan.